



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUAREN KARATULA, BBUPren DNSren SEGURTASUN-ZERBITZUA BERRITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO NEXT GENERATION EU – SUSPERTZE- ETA ERRESILIENTZIA-MEKANISMOTIK DATOZEN FUNTSEKIN FINANTZATUTA, 5. OSAGAIAREN (ITSASERTZA ETA UR-BALIABIDEAK ZAINTEA) 3. INBERTSIOAREN ESPARRUAN (ERALDAKETA DIGITALA URAREN SEKTOREAN – INGURUMEN-APLIKAZIO DIGITALA). ESPEDIENTEAREN ZK.: 3257

Erregulazio bateratua duen kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Marian Mena Dominguez
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA.
1.- Kontratuaren xedea: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren DNSa babesteko egungo soluzioaren mantentze-lanak eta bilakaera berritzea. 2.- Bete beharreko premiak: Helburu nagusia da egungo azpiegitura teknologikoaren funtzioak, prestazioak eta gaitasunak berritzea, modernizatzea eta hobetzea, sarera edo gailuetara iritsi aurretik ransomware, phishing edo botnets gisako mehatxuen aurrean babesteaz arduratzen baitira. Hala, mehatxuen blokeo proaktiboa egin daiteke hodeian oinarritutako soluzio eraginkor baten bidez, kudeaketa sinplifikatuarekin, inplementazio azkarrarekin eta BBUPren segurtasun-sistemekin integratuta. DNS eskaerak IP konexioa ezarri aurretik aztertzen dira, eta jarduera maltzurak denbora errealean blokeatzen dira. Gainera, domeinu-eskaera bakoitza erregistratu eta babestu nahi da, portua edo protokoloa edozein delarik ere, DNS trafikoaren ikuspen osoaren bidez. Gailu korporatiboak, hibridoak edo mugikortasunekoak babestu nahi dira, sare korporatiboaren barruan eta kanpoan babestuta. Zerbitzua hodeiko segurtasun-eredu baten barruan sartzen da, eta trafiko maltzurra eta webgune arriskutsuak iragazteko aukera ematen du, web-pasabide seguru baten bidez. Hala, kontsultek eta DNS datuek BBUPren bereziki babestutako informazioa arriskuan jartzen ez dutela ziurtatzen da, zero konfiantzako politika baten arabera. 3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: BBUPren DNSa babesteko sistema guztien artean zerbitzu bakarra da, eta gatazka sor daiteke hainbat kontratuk elkarri eragiten dioten sistemetan jarduten badute.



B.- KONTRATUAREN XEDEA.

4.- CPV: 72540000-2

5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea:

☐ BAI

☒ EZ

Onartzeko baldintzak eta aldatu edo aukeratu daitezkeen elementuak: Ez da aplikatu behar

6.- Izaera juridikoa:

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.-Lizitazio-aurrekontua
(BEZik gabe)

**BERREHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI
MILA EURO (278.000,00 €), BEZik GABE.**

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 442.000,00 euro

Sortak: ☐ BAI ☒ EZ

3.-Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Aleko prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:
92005-21501

- 2026. urtea: 114.000,00 euro, BEZik gabe.
- 2027. urtea: 82.000,00 euro, BEZik gabe.
- 2028. urtea: 82.000,00 euro, BEZik gabe.

5.-Prezioak berrikustea:

☐ BAI

☒ EZ

6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☒ BAI ☐ EZ

Funts-mota:

Finantzaketa Europar Batasunaren Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren –Next Generation EU– funtsaren kargura izango da. Funts hori Kontseiluaren 2020ko abenduaren 14ko 2020/2094 Erregelamenduaren (EB) bitartez ezarri zen. Horren bidez, Europar Batasunaren berreskuratze-tresna bat ezarri zen COVID-19aren ondorioz sortutako krisiaren berreskuratze-prozesuan laguntzeko eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamenduaren bidez arautzen da; azken horren bitartez ezartzen da Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa.

% 90, elkarrekin finantzatua: (BEZari dagokiona ez ezik)

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez.

Europako NEXT GENERATION funtsekin diruz lagundutako kontratua denez, gerta daiteke egindako lanei buruzko ziurtagiriak bi ziurtagiritan banatu behar izatea, bata diruz lagundutako zenbatekoari dagokiona eta bestea gainerako zenbatekoari dagokiona.



C.-KONTRATUAREN PREZIOA

9.1- Softwarea, lizentziak eta mantentze-lanak/euskarria

Oro har, mota horietako fakturazio-baldintzak urteko ziurtagirien bidez egingo dira, baldintza teknikoen pleguan aipatzen diren mantentze-lan, euskarri, lizentza edo software guztietarako.

Ale osoak edo ehunekoak ziurtatuko dira, aurrerapen-mailari dagokionaren arabera, ohar hauek kontuan:

- Fabrikatzailearekin software, lizentzia, mantentze-lan eta euskarriak berritzen direnean, BBUPk berariaz eskatzen ez badu, fabrikatzaileak kontratu berriarekin aktibo gisa alta ematen duenetik aurrera zenbatuko da epea.

- Ekipo berrien kasuan, softwarea, lizentzia, mantentze-lanak eta euskarria aktibatzean, ekipo berriak BBUPren sarean eta ekoizpenean instalatzen diren unetik hasiko da kontatzen, BBUPk proiektuaren arduradunekin aldez aurretik adostutako epean.

9.2- Laguntza teknikoko zerbitzuak, ordu-poltsa eta monitorizazioa

Oro har, mota horretako edozein zerbitzuren fakturazio-baldintzak hileroko ziurtagirien bidez egingo dira, BBUPren arduradunek kontratistak entregatu beharreko txostena onartu ondoren, eta jarraipenerako baldintza hauek bete beharko dira:

Ale osoak edo ehunekoak ziurtatuko dira, aurrerapen-mailari dagokionaren arabera, ohar hauek kontuan:

- Laguntza teknikoko zerbitzuen eta ordu-poltsen kasuan, egindako lanen txosten xehatua bidali behar dio adjudikaziodunak BBUPren koordinatzaileari, izan daitezkeen desbideratzeekin.

- Ordu-poltsen kasuan, hileko egiaztapen-txostenean, zeregin bakoitzeko egindako lanak zehaztu behar dira, izan ditzaketen desbideratzeekin, eta lan bakoitzean inbertitutako ordu-kopurua zehaztu behar da.

- Monitorizazio-zerbitzuen kasuan, partida bakoitzaren guztizkoaren ehuneko bat fakturatuko da proportzionalki, kontratua gauzatzeko epearen arabera. Zenbateko osoaren % 100 hileko azken ziurtagiriarekin fakturatuko da, kontratua gauzatzeko epea amaitzean.

8.-Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar

D.-KONTRATUAREN EPEA

1.-Iraupen osoa: HOGEITA HAMASEI (36) HILABETE

2.- Epe partzialak.

☒ BAI ☐ EZ.

3.-Luzapena

☒ BAI ☐ EZ

HAMABI (12) HILABETEKO BI (2) luzapen.



D.-KONTRATUAREN EPEA

Luzapen hori agiri ekonomikoetan edo agiri teknikoen prezioen taulan adierazitako item hauei baino ez zaie aplikatuko:

- Proiektuan sartutako lizentziak (1. itema)
- Fabrikatzailearen eta integratzailearen mantentze-lanak (2. eta 3. itemak).
- Integratzailearen laguntza tekniko espezializatuko ordu-poltsa (7. itema)

4.-Berme-epea: Kontratuak irauten duen bitartean

5.- Kontratua gauzatzeko tokia: BBUPren hainbat instalazio

6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin. (92.666,66 €)

G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

- Azken hiru urteetan fabrikatzaileek DNSaren babesean oinarritutako eta mehatxu aurreratuen aurkako babes adimenduneko soluzioak instalatzeko, martxan jartzeko eta mantentzeko egindako lan nagusien zerrenda, datak eta hartzailea (publikoa edo pribatua) adierazita, egikaritze onaren ziurtagirien bermearekin. Hartzailea sektore publikoko erakundea denean, organo eskudunak egindako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako lanak. Hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, ziurtagiri hori ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, hala badagokio; eta gutxienezko baldintza izango da gauzatze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70 edo handiagoa izatea, edo, bestela, urteko batez besteko zenbatekoarena kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa bada.

- Proposatutako konponbidearen fabrikatzaileak gutxienez "urrezko" ziurtagiria edo proposatutako segurtasun-fabrikatzailearen baliokidea izan behar du lizitatzailerak enpresa gisa, eta fabrikatzaile horrentzat eskatzen den teknologiararen ziurtagiri espezifikoak izan behar du.

Ziurtagiri horrek eskaintzak egiteko epea amaitu baino lehenagoko jaulkipen-data izan beharko du.

Giza baliabideak eta baliabide materiala atxikitzea:

- Fabrikatzailearen talde teknikoa, DNSaren babesean oinarritutako mehatxu aurreratuen aurkako babes adimenduneko soluzioetan aditua. Proiektuaren xede den laguntza teknikoko zeregin nagusiak egiteaz arduratuko da:
 - Konfigurazioa eta soluzio berrira migratzea
 - BBUPren barneko eta kanpoko monitorizazio-tresnekin integratzea, edo dokumentuak eta eskuliburuak, edo zerikusia duten beste zeregin batzuk
- Proiektuan ezarritako teknologiararen mantentze-lanetan eta euskarrian espezialistak direnen talde teknikoa, lanorduetan nahiz lanorduetatik kanpo.
- Adituen talde teknikoa, ordu-poltsako lanak egiteaz arduratuko dena
- Aurreko ezaugarriak osa ditzakeen beste edozein profil, izendatutako langileek lanekiko duten esperientzia eta gaitasuna frogatzeko balio duena.

Hori guztia, proiektuaren zereginak kudeatzeko eta koordinatzeko lanak egiteko izendatutako teknikaria edo teknikariak kontuan hartu gabe, plegu teknikoan adierazten den moduan.

Laguntza teknikoko lanekin zerikusia duten proiektuko eginkizunak egin ditzaketen teknikari espezialistek gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko dute antzeko proiektuetan. Gainera, ekipoen fabrikatzaileek behar bezala ziurtatutako teknikariak izan behar dira.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoa:

Kaudimenean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.



ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

1- Proiektuari esleitutako talde teknikoaren osaera, eta taldekideen kualifikazioa proiektua kontratuaren xedeari egokitzeko.

Talde teknikoaren kide bakoitzaren curriculum vitae-a erantsiko da, egin beharreko lanei buruzkoa, eta deklaraturakoa egiaztatzeko beharrezkoak diren agiri bidezko frogak emango dira, kontratuari atxikitako teknikariak zein diren adierazita.

Egin beharreko lanekin zerikusia duten prestakuntza-ziurtagiriak sartuko dira, eta, positiboki baloratu ahal izateko, prestakuntza-ikastaroak egin direla egiaztatu beharko da, baita ikastaroekin zerikusia duen lan-esperientzia eta azken urteetan lan horiek gauzatu direla egiaztatzen duen edozein dokumentu ere. Ezin izango da datu nominalik edo sexua adierazten duen daturik agertu. Proposatutako talde teknikoaren kideen esperientzia behar bezala egiaztatu beharko da.

Gutxienez, talde tekniko bat aurkeztu beharko da, honako profil hauekin, eta talde horrek proiektuari dagozkion zereginak gauzatzeko duen antolaketa zehaztu beharko da:

- Kontratatoren ordezkariak, pleguan zehaztutako zerbitzuak koordinatzeaz eta horien jarraipena egiteaz arduratzen direnak:
 - DNSaren babesean oinarritutako mehatxu aurreratuen aurkako babes adimenduneko zerbitzua migratzeko laguntza teknikoak.
 - Ordu-poltsaren zerbitzua pleguak irauten duen bitartean; edo mantentze-zerbitzua pleguak irauten duen bitartean. Fabrikatzaileak aurrez ezarritako soluzioan espezialistak diren teknikariak. Proiektuaren xede diren laguntza teknikoko zeregin nagusiak egiteaz arduratuko dira:
 - Soluzio berrirako konfiguratzeko eta migratzea; edo BBUPren barneko eta kanpoko monitorizazio-tresnekin integratzea; edo Dokumentuak eta eskuliburuak.
 - Zerikusia duten beste zeregin batzuk.
- Proiektuan ezarritako teknologiaren mantentze-lanetan eta euskarrian espezialistak direnen talde teknikoak, lanorduetan nahiz lanorduetatik kanpo.
- Adituen talde teknikoak, ordu-poltsako lanak egiteaz arduratuko dena.



BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Aurreko ezaugarriak osa ditzakeen beste edozein profil, izendatutako langileek lanekiko duten esperientzia eta gaitasuna frogatzeko balio duena.
- 2- Proiektuaren ataza, mugarri eta fase guztien plangintza egitea, pleguan ezarritako eta eskatutako datak betetzeko.
- 3- Soluzioaren analisia eta diseinua: plangintza, planteamendua eta entregatu beharreko dokumentuak.
- 4- Hornidura: ekipo eta lizentzia berrien ezaugarri teknikoak, eskuratze- eta entregatze-datak, berme-aldia eta -baldintzak.
- 5- Laguntza teknikoko lanak laburtu eta planteatzea, BBUPren DNSa babesteko egungo soluzioa DNSa babestean oinarritutako babes adimenduneko soluzio aurreratu berri batera migratzeko.
 - Lanei ekiteko zereginak planifikatzea eta planteatzea.
 - Entregatu beharreko agiriak zehaztea.
 - BBUPren barneko eta kanpoko monitorizazio-sistemekin integratzea.
 - Lanekin lotutako bestelako informazio garrantzitsua.
- 6- Ekipamenduaren mantentze-lanen zerbitzuaren planteamendua
 - Fabrikatzailearekin eta integratzailearekin zerbitzuen eta ekipoen mantentze-lanak eta lizentziak kontratatzeke eta berritzeko datak planifikatzea, eta hasiera- eta amaiera-datak zehaztea.
 - Berme-aldia eta -baldintzak.
 - Lizitatzailaren mantentze-lanen zerbitzuaren xehetasunak:
 - Proposatutako zerbitzuaren planteamendua, Bilbo/Bizkaiko Uren Partzuergoak pleguan eskatutako baldintzak zehaztuta (mantentze-lan zuzentzaileak, bertsioa urtero eguneratzea, mantentze-lan ebolutiboa); edo ZMAk (zerbitzu-mailaren akordioak) betetzea; edo proposatutako harremanetarako moduak eta prozedurak; edo erantzuteko eta ebazteko denborak; edo jarraipen-metodoa.
 - Gorabeheren, desbideratzeen eta ZMAen betetze-mailaren jarraipen-txostenak.
 - Jarraipen-sistemaren xehetasunak eta eskaintzailearen gorabeheren harrera.
- 7- Laguntza tekniko espezializatuko zerbitzua
 - Fabrikatzailearen Ezarpenerako Laguntza Teknikoko Zerbitzua edo zerbitzuaosatzen duten zereginak definitzea
 - Zerbitzuaren planteamendua eta harremanetan jartzeko eta jarraipena egiteko moduak
 - Fabrikatzailearen jarraipena egiteko laguntza teknikoko zerbitzua martxan jarri ondoren, edo zerbitzuaosatzen duten zereginak definitzea
 - Zerbitzuaren planteamendua eta harremanetan jartzeko eta jarraipena egiteko moduak



BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Integratzailearen ordu-poltsarako Laguntza Teknikoko Zerbitzua; edo zereginak eskatzeko zerbitzuaren planteamendua eta harremanetarako moduak; edo erantzuteko eta ebazteko denbora; edo jarraipen- eta fakturazio-metodoa edo proposatutako jarraipen-txostenak

8- Plegu Teknikoan adierazitakoaren arabera entregatzeko proposatzen diren agirien laburpena

9- Eman beharreko prestakuntzaren xehetasunak, plegu teknikoan zehaztutakoaren arabera

10- Laguntza Teknikorako, mantentze-lanetarako eta Laguntza Tekniko Espezializatuko modalitate guztietako lanetarako planifikaziorako, zereginen jarraipenerako eta elkarrizketarako metodoak eta harreman-moduak zehaztea.

11- Ekipoak antolatzea.

12- Plegu teknikoan adierazitako erantzun-denborak eta ZMAk betetzen direla bermatzeko behar diren baliabide teknikoen deskribapena.

Bereziki, "IN SITU" laguntzeko denbora. Eskatutako ZMAen arabera in situ asistentzia nola beteko den adierazi behar da.

13- Kontratuaren esku dauden bulegoak eta erantzun-denborak betetzeko gaitasuna zehaztu eta deskribatu.

14- Dokumentu ekonomikoetan jasoko den taula bera sartzea, edozein zenbateko ekonomiko kenduta.

Lehen aipatutako dokumentu teknikoen edukia zehatza izan behar da kontratuaren helbururako. Paperean eta formatu digitalean entregatu behar dira, eta gehienez 25 orrialdekoa izan behar du, eta ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde kopurua zenbatzeko, aipatutako mugaren barruan zenbatuko da aurkibidea, eta ez dira kontuan hartuko azala eta kontrazala.

Aurreko zenbaketaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko antzeko lanei, esleitutako ekipoaren esperientziari (gauzatze-ziurtagiriak, ikastaroak eta prestakuntza, esperientzia, CV eta abar), proposatutako ekipamenduaren zehaztaperen teknikoen datasheet-ei eta azpikontratutako lanen konpromiso-dokumentuei buruzko erreferentziak egiaztatzen dituzten agiriak, eta informazio hori aparteko eranskin batean erantsi beharko da.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Dokumentuaren atalen hurrenkerak argi eta txukun jarraituko dio balorazio-irizpideetan azaldutako zerrendari, hurrengo xehetasun eta luzera kontuan hartuta, eta guztira ezin izango du gainditu aurreko paragrafoan adierazitako orrialde-kopurua.

Lehen zehaztutako baldintzak betetzen ez badira, zigortu egingo da eskaintzaren balorazioa, eta, beraz:

- Ezarritako muga gainditzen duen orrialde bakoitza ez da kontuan hartuko balorazioan (ez da irakurriko).
- Beste edozein muga (marjinak, letraren tamaina eta abar) betetzen ez bada, eskaintza teknikoaren balorazioa 0,05 puntu murriztuko da.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskinaren ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Lizitatzailleek atal honetan zehazten diren material guztien aleko prezioak eta guztizko prezioak adierazi beharko dituzte, horien zenbatekoan eskubide, gastu, onura, zerga (BEZ kanpo) eta abar guztiak sartuta. Horrela, hornitutako materialei eskaintako prezioak aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak ordainduko dira.

Aleko prezioen zerrenda eta eskaintzak homogeneizatzeko zenbatetsitako neurketak:

ID	ERREFERENTZIA	AZALPENA	KOP.
1		Lizentziak berritzea eta zabaltzea DNSaren babesean oinarritutako mehatxu aurreratuen aurkako babes adimenduneko funtzioak dituzten 1100 erabiltzaile konkurrenteentzat.*	1100
2		Ekipo eta zerbitzu guztien fabrikatzailearen 24x7x4 euskarria, urtekoa, kontratuak irauten duen bitartean	1
3		Ekipo eta zerbitzu guztien 24x7x4 euskarri integratzailea, urtekoa, kontratuak irauten duen bitartean	1
4		Ingeniaritza Zerbitzua soluzioa migratzeko, martxan jartzeko eta dokumentatzeko	1
5		Ingeniaritza Zerbitzua, soluzioa BBUPren monitorizazio-sistemekin integratzeko	1

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

6		Fabrikatzailearen laguntza tekniko espezializatuko zerbitzua, ezarri eta abian jarri ondorengo arkitektura eta jarraipen teknologikoa ezartzeko	1
7		Proiektuko teknologietan integratzaile gisa espezializatutako laguntza teknikoko orduen poltsa zerbitzua 25 ordu urtean	1
8		Prestakuntza	1

*oharra: makina birtualetarako lizentzia espezifiko behar bada DNS eskaerak domeinu-kontrolatzaileei birbidaltzeko, edo soluzioak behar bezala funtzionatzeko eta plegu honetan eskatutako zehaztapenak betetzeko beharrezkoa den beste edozein lizentzia.

Eskaintza ekonomikoan bereizitako item bakoitza lerroka jarri. Taula horretan lerro bakarra adierazten bada, adibidez, lizentzia baterako, eta fabrikatzaileak hirutan zatitzen badu, eskaintzan 3 lerro jarri eta justifikazioa adierazi.

Itemik ez badago, adierazi eskaintzan. Baldintza tekniko partikularren pleguaren eskakizunak betetzeko lizentziarik ez badago, taula horretan adierazi eta erantsi behar da.

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik Administrazio-klausula partikularren pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidenteak:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**1.- Adjudikazio-irizpideak:**

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez ere 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Argibideak:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - B_M)}{(B_{\max} - B_M)} \times 2$$

Baldin eta $(B_M + B_{\max}) / 2 < B_i \leq B_{\max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - B_M - B_{\max})}{(B_{\max} - B_M)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU**- Memoria teknikoa eta gauzatze-metodologia (26 puntu)****1- Proiektuaren ataza, mugari eta faseen plangintza: (4 puntu)**

- Kontratuaren xede diren lanetarako identifikatuko diren metodologia eta faseak, kontratua ezagutzen dela eta eman beharreko zerbitzuaren arazoak ulertzen direla egiaztatzen dutenak.
- Proiektua gauzatzeko epearen barruko lanen programaren xehetasunak, lanen iraupen justifikatua eta lanen banaketa sekuentzialaren koherentzia adierazita.
- Lanak gauzatzeko aurreikusitakoaren plangintza xehatuan hauek zehaztu behar dira: mugarriak, entregagaiak, zereginak, iraupena, zereginei esleitutako lan-taldea eta abar. Lan-planak ahalik eta zehatzena izan behar du.

2- Soluzioaren analisisa eta diseinua (3 puntu)

- Zereginak betetzeko datak planifikatzea
- Definitu beharreko zerbitzu eta funtzio berrien xehetasunak, BBUPren berezitasunetara egokituta.

3- Hornidura (2 puntu)

- Lizitatzailerak proposatutako ekipamenduaren, softwarearen eta lizentzien funtzio eta gaitasun gehigarriak, plegu teknikoan eskatutako gutxieneko eskakizunekin alderatuta.
- Pleguan aipatzen diren ekipamendu, software eta lizentzia berriak eskuratzeko, pleguaren baldintza berezien arabera eta egokia denean:
 - Kontratua sinatzen denetik fabrikatzailearengandik eskatutakoa jasotzeko egunak planifikatzea eta proiektua sustatzeko bilera egitea
 - Fabrikatzaileak entrega-datei buruz egindako zenbatespena.
 - Euskarriak eta lizentziak berritzeko balizko datak
- Berme-aldia eta -baldintzak.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

4- BBUPren egungo soluzioa migratzeko laguntza teknikoa, BBUPren berezitasunak kontuan hartuta (6 puntu)

- Eskatutako zereginiei ahalik eta zerbitzu-etenaldirik txikienarekin eta BBUPren jarraibideen eta beharren arabera ekiteko plangintza eta planteamendua.
- Eskatutako zereginiei ekiteko eman beharreko agiriak zehaztea eta zehaztea: diseinu-dokumentuak (HLD, LLD), migrazio-planak, proba- eta erredundantzia-planak, kontingentzia-planak, ustiapen-eskuliburuak eta -prozedurak...

5- Soluzioa BBUPren monitorizazio-sistemekin integratzea (2 puntu)

- Barne-monitorizazioko sistemekin integratzeko plangintza eta planteamendua
- Kanpoko monitorizazio-sistemekin integratzeko plangintza eta planteamendua
- Log-ak erregistratzeko eta soluzioaren txostenak sortzeko funtzioak

6- Mantentze-lanen zerbitzua (3 puntu)

- Berme-aldia eta -baldintzak.
- Fabrikatzailearen mantentze-lanen zerbitzuaren ezaugarriak, pleguaren zehaztapenen arabera.
- Lizitatzailleak proposatutako mantentze-zerbitzuaren planteamendua:
 - Mantentze-lan zuzentzaileak, software-eguneraketari buruz pleguan eskatutako zehaztapenak barne.
 - Ekipoen bertsioaren urteko eguneraketaren planteamendua eta jarraipena.
 - Mantentze-lan ebolutiborako proposamenak; edo ZMAk betetzea.
 - Harremanetarako proposatutako moduak eta prozedurak.
 - Gorabehera KRITIKOETARAKO.
 - Gorabehera EZ-KRITIKOETARAKO.
 - Erantzuteko eta ebazteko denborak.
 - Lizitatzailleak proposatutako gorabeheren jarraipen-metodoa eta txostenak, BBUPren oharra eta beharra kontuan hartuta.
 - Lizitatzaillearen gorabeheren jarraipena egiteko eta horiek jasotzeko sistemarako tresnaren xehetasuna.

7- Laguntza tekniko espezializatuko zerbitzuak (3 puntu)

- Fabrikatzailearen laguntza tekniko espezializatuko zerbitzua eta zereginak definitzea ezarpenerako.
- Fabrikatzailearen laguntza tekniko espezializatuko zerbitzua eta zereginak definitzea, ezarri ondorengo jarraipena eta bilakaera egiteko.
- Integratzailearen ordu-poltsaren zerbitzua:

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Lizitatzailleak proposatutako zerbitzuaren planteamendua eta PREMIAZKOAK ETA PREMIAZKOAK EZ DIREN lanak eskatzeko proposatutako harremanetarako moduak.
- Erantzuteko eta ebazteko denborak.
- Eskaintzaileak proposatutako jarraipen- eta fakturazio-metodoa eta txostenak, BBUPren oharra eta beharra kontuan hartuta.

8- Agiriak (1,5 puntu)

- Plegu teknikoaren arabera entregatu beharreko dokumentuak zehaztea.

9- Prestakuntza (1,5 puntu)

- Soluzioari buruzko ezagutza transferitzeko planteamendua.
- Fabrikatzailearen prestakuntza ofiziala, pleguaren zehaztapenen arabera.

- Kontraturako eskuragarri jarritako bitarteko teknikoak (24 puntu)

- 1- Kontratuari esleitutako bitarteko teknikoak eta antolakuntzakoak. Proposatutako lantaldearen banakako deskribapena, datu pertsonalak, akademikoak, instalatu beharreko ekipoen ziurtagiri eguneratuak eta profil profesionala adierazita. Konfiguratu edo instalatu beharreko ekipoei eta proiektuaren helburuekin zerikusia duten proiektuen eta proiektuan parte hartuko duten langileen ezagutzak, esperientzia eta ziurtagiriak bakarrik egiaztatuko dira. Ekipoak bereizi egin behar dira proiektuaren barruan egingo duten lanaren arabera (laguntza teknikoa, mantentze-lanak, ordu-poltsa...) (14 puntu)
- 2- Proiektuaren laguntza teknikoa planifikatzeko, zereginen jarraipena egiteko eta solaskide izateko metodoak eta harremanetarako modua. (1 puntu)
- 3- Soluzioaren eta ekipamenduaren mantentze-lanetarako plangintzarako, zereginen jarraipenerako eta elkarriketarako metodoak eta harreman-moduak. (1 puntu)
- 4- Laguntza Tekniko Espezializatuko zerbitzuaren lanak planifikatzeko, zereginen jarraipena egiteko eta solaskide izateko metodoak eta harreman-moduak. (1 puntu)
- 5- Ekipoak antolatzea. (1 puntu)
- 6- ZMAk betetzeko baliabide teknikoak, informatikako laguntza teknikoa in situ emateko erantzun-denbora. (5 puntu)
- 7- Kontratuaren esku dauden bulegoak eta erantzun-denborak betetzeko gaitasuna zehaztu eta deskribatu. (1 puntu)

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- a) Enpresetako plantilletan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketan dauden langileen ehuneko handiagoa. Berdinketak egonez gero, desgaitasuna duten plantillako langile finkoen kopurua edo gizarte-bazterketan daudenena lehenetsiko da.
- b) Enpresa bakoitzaren plantillako aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- c) Enpresa bakoitzaren plantillako emakume langileen ehuneko handiena.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerak bakarrik izanik, lizitazioaren oinarriko aurrekontua baino % 25 txikiagoa denean.
- Bi lizitatzailerak izanik, beste eskaintzaren aldean % 20 baino txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzailerak izanik, egindako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta % 10 baino handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokatzen joko da % 25etik gorako beharpena.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago izanik, egindako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa baino % 10 handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak egin dituztenean, ustezko anormaltasuna duten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, txikiena hartuko da kontuan, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka egin duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertze arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

ESKAINZA BAZTERTZEKO EZ-BETETZE TEKNIKOAK

- Baldintza tekniko partikularren pleguan eskatzen diren gutxieneko prestazioak edo ezaugarri teknikoak ez betetzea.
- Eskaintzako ekipoen marka eta modelo zehatzak ez adieraztea eta “edo antzekoak” bezalako adierazpenak idaztea.
- Beharrezko dokumentazio teknikoa ez aurkeztea edo zuzen ez egiaztatzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko partikularren pleguan adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko partikularren pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.



M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Epeak ez betetzea:

1. Pleguan aipatzen den eta BBUPren instalazioetan ekoizten ari den ekipoen mantentze-lanak eta lizentziak fabrikatzailearekin kontratatzeke edo berritzeko gehieneko epea ez betetzea; edo fabrikatzaileak epez kanpo ematea mantentze-lan horiek jasotzeko eskaera egin dela egiaztatzen duten dokumentuak edo jakinarazpen ofizialak.

Zigorrak: Kontratuaren prezioaren % 3 atzeratutako aste bakoitzeko.

Kontratua suntsiaraztea: Jabeak (BBUP) zehaztuko ditu zigorrak, aurreko baldintzatzailea kontuan hartuta. Kontratu osoaren % 10era irits daiteke zigorra, eta BBUPk kontratua bertan behera utz dezake %5 gaindituz gero. BBUPk urrats hori egin dela frogatu behar badu, lizitatzaileak fabrikatzailearen dokumentu edo jakinarazpen ofizialak entregatu behar ditu, mantentze-lanak jasotzeko eskaera egin dela egiaztatzeko.

2. Ekipamendu berria, mantentze-lanak edo lizentziak direla eta fabrikatzaileari egiten zaizkion erosketekin lotuta pleguan aipatzen den gehieneko epea ez betetzea; edo fabrikatzaileak epez kanpo ematea erosketak eskaera egin dela egiaztatzen duten dokumentuak edo jakinarazpen ofizialak.

Zigorrak: Kontratuaren prezioaren % 3 atzeratutako aste bakoitzeko.

Kontratua suntsiaraztea: Jabeak (BBUP) zehaztuko ditu zigorrak, aurreko baldintzatzailea kontuan hartuta. Kontratu osoaren % 10era irits daiteke zigorra, eta BBUPk kontratua bertan behera utz dezake % 5 gaindituz gero. BBUPk urrats hori egin dela frogatu behar badu, lizitatzaileak fabrikatzailearen dokumentu edo jakinarazpen ofizialak entregatu behar ditu, mantentze-lanak jasotzeko eskaera egin dela egiaztatzeko.

3. Lizitatzaileak ez badu betetzen proiektuaren mugarriak eta atazak betetzeko behar den denbora (eskaintzan eta BBUPren sustapen-bileran aurkeztutako proiektuaren hasierako plangintzan zehaztua), eta horretarako justifikaziorik ez badago, adjudikazioaren zenbatekoaren % 10era arteko zigorra ezarriko da.

4. Baldintza teknikoaren pleguaren mantentze-lan zuzentzaileekin lotutako gorabeherak konpontzeko epea ez betetzea.

Zigorrak: Eskaintako eta adostutako erantzuteko denbora betetzen ez bada, gertakariaren uneko hileko ziurtagiriari % 3 kenduko zaio, edo horren baliokidea urteko ziurtagiria bada.

Kontratua suntsiaraztea: Jabeak (BBUP) zehaztuko ditu zigorrak, aurreko baldintzatzailea kontuan hartuta. Kontratu osoaren % 10era irits daiteke zigorra, eta BBUPk kontratua bertan behera utz dezake % 5 gaindituz gero.

5. Zerbitzua galtzea dakarten gorabehera larrien aurrean erantzuteko denbora gainditzea.

Zigorrak: 500 €, erabakitako ZMAren arabera atzeratutako ordu bakoitzeko.

Kontratua suntsiaraztea: Jabeak (BBUP) zehaztuko ditu zigorrak, aurreko baldintzatzailea kontuan hartuta. Behin baino gehiagotan zerbitzua galtzea dakarten gorabehera larriei erantzuteko pleguan zehaztutako denborak betetzen ez badira, kontratua bertan behera utzi ahal izango da.



Kontratuaren xede den prestazioa gaizki betetzea

1. Lantalde bat aurkeztea, kontratistaren eskaintzan adierazitako profil eta esperientziekin bat ez datorrena.

Kontratua suntsiaraztea: BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

2. Hasieran proposatutako lantaldea aldatzea, gutxienez aurreko taldearen ezaugarri berak betetzen ez baditu.

Zigorrak: kontratuaren prezioaren % 3, lantaldean aldatutako pertsona bakoitzeko.

3. Informazioa edo datuak galtzea, eta kontratuak irauten duen bitartean landutako proiektuetan gordetako informazio sentikorrerako sarbidea urratzea.

Kontratua suntsiaraztea: Datuak babesteko araudia betetzea funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da, eta, beraz, BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

4. Kontratua indarrean dagoen bitartean eskuratzen den informazioari buruzko konfidentzialtasun-betebeharra ez betetzea.

Kontratua suntsiaraztea: Datuak babesteko araudia betetzea funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da, eta, beraz, BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

5. Zerbitzu-mailako akordioak ez betetzea, ebazteko denbora finkatutakoa baino luzeagoa bada.

Zigorrak: kontratuaren hileko zenbatekoaren % 1, ezarritako ehunekotik beherako puntu bakoitzeko.

6. Lanak zerbitzuaren beharrei lotuta egongo dira. Horregatik, BBUPk hala eskatzen duen bakoitzean (nahierara) eten edo atzeratu egin beharko dira.

Kontratua suntsiaraztea: kontratua bete ezean, BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

7. Zerbitzuak lehentasuna du kontratuko lanen gainetik; beraz, jarduera kontratuarekin bateragarriak diren egun eta orduetan egingo da. Hori dela eta, lanak egin ahal izango dira gauez, asteburuetan, lanak egiten ari diren bitartean izaten diren hutsarte handietan eta baldintza jakin batzuetan egiten diren aldi baterako eta ustekabeko etenaldietan. Hori guztia BBUPri inolako kostu gehigarriarik sortu gabe. Adjudikaziodunak ez du ez ohiko konpentsazio ekonomikorik jasoko horregatik eta, horrenbestez, baldintzatzaile horiek kontuan hartu beharko ditu eskaintzaren prezioetan.

Kontratua suntsiaraztea: kontratua bete ezean, BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

8. Adjudikaziodunaren akats edo arduragabekeriak eragindako matxura edo istripu larria.

Kontratua suntsiaraztea: BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

Zigorrik izan bada, ateratzen den zenbatekoa emandako fakturaren zenbatekotik deskontatuko da.



M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kargura finantzatutako kontratuen kasuan, aurreikusi gabeko aldaketak egiteko aukera egongo da, baldin eta zehaztutako baldintzak aldatzea beharrezkoa bada eta araudi-aldaketak gertatu badira eta horien ondorioz planaren ezaugarriak/baldintzak ezberdinak badira.

Kontratua aldatzeko arrazoia izango da agintaritza arduradunak agintzea neurri zuzentzaileak ezarri behar direla DNSHri eta etiketatze berdeari eta digitalari dagokienez.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasierako ekarpenaren betebeharra

Lizitatzailleek kontratuaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duten adierazi beharko dute eskaintzan. Kontratuaren zenbatekoa eta azpikontratatzen izena adierazi beharko dituzte, eta azpikontratatzen kontratua egikaritzeko duen gaitasuna behar bezala justifikatu beharko dute, dituen elementu teknikoei eta giza elementuei eta esperientziari erreferentzia eginda.

Enpresa eskaintzaileek zein enpresa azpikontratatzeko dituzten adierazi beharko dute eskaintzan.

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA



☒ BAI ☐ EZ

R.- BERRESKURATZE-, ERALDAKETA-, ETA ERRESILIENTZIA- PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA

EDUKIA:

Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak lau helburu handi ditu (Espainia berdea, Espainia digitala, Espainia genero-arrakalarik gabe eta Espainia kohesionatua eta inklusiboa) eta hamar palanka-politika hauek ere baditu:

- I. Hiri- eta landa-agenda eta despopulazioaren aurkako borroka.
- II. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak.
- III. Energia-trantsizio bidezkoa eta inklusiboa.
- IV. XXI. menderako administrazioa.
- V. Industria-sarearen eta ETEen modernizazioa eta digitalizazioa, turismoa berreskuratzea eta Espainia nazio ekintzaile gisa sustatzea.
- VI. Zientziaren eta berrikuntzaren aldeko hitzarmena. Osasunaren sistema nazionalaren trebetasunak indartzea.
- VII. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta trebetasunak garatzea.
- VIII. Zaintzen eta enplegu-politiken ekonomia berria.
- IX. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea.
- X. Zerga-sistema modernizatzea hazkunde inklusibo eta jasangarrirako.

Aldi berean, palanka-politika horiek 30 osagaitan zehazten dira. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren **5. osagaiaren barruan (Itsasertza eta ur-baliabideak zaintzea) 3. inbertsioa dago (Eraldaketa digitala uraren sektorean)**. Lizitazio honen edukia osagai horren barruan dago; kontratistak/azpikontratatistak hura ezagutzen duela adierazten du, eta bere jardun-eremuan hura betetzeko hitzematen du.

Horretarako, hari lotutako helburuak lortzen lagunduko du European eta Espainian suspertze- eta erresilientzia-mekanismoaren eta Suspertze-planaren araudiarekin bat etorriz. Zehazki, oinarri hauekin egingo diren jarduketan esparruak hauek izan ahalko dira:

- **C5.I3a azpineurria**, ur-baliabideak hobeto ezagutzeari eta erabiltzeari buruzkoa.

Uraren eta energiaren erabilera efizientzia sustatzeko modurik onena uraren hiri-zikloaren kudeaketa integrala egitea da eta, horrenbestez, digitalizazioa uraren hiri-zikloaren kudeaketa orokorrean hobetzeko zeharkako neurria da. Hala, BEEPn diseinatuta dagoen moduan, CID CID #79 helburua (Tresnak martxan jartzea baliabide hidrikoen ezagutza eta erabilera hobetzeko eta prezipitazioak eta bestelako datu meteorologikoak erregistratzeko) betetzen lagunduko da eta lana osatuko da. Aurrekoaren xedea da bermatzea 91/271/CEE Zuzentaraua betetzen dela eta energia-efizientziako helburuak betetzea edo efizientzia hobetzea eta ura banatzeko sistemetako ur-galerak murriztea.



	Inbertsioak Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren «C5.I3.» atalaren barne daudenez, <u>egingo diren jarduketak «040: Ura kudeatzea eta baliabide hidrikoak kontserbatzea (horren barne daude ibai-arroen kudeaketa, klima-aldaketara egokitzeko neurri espezifikoak, berrerabilpena eta jarioak murriztea)» esku-hartze eremuan egongo dira, zehazki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamenduaren VI. eranskinean (Klimaren aldeko ekintzarako jarraipen-metodologia).</u> Deialdia egin duen erakundeak deialdiarekin lotutako mugarri horiek (lorpen kualitatiboak) eta helburu kuantitatiboak (lorpen kuantitatiboak) bete direla egiaztatu ahal izateko, kontratistak/azpikontratistak nahitaez aurkeztu beharko ditu dagozkion epeetan eta forman jarraipen-txostenak. Jarraipen-txosten horiek irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan (BEEP kudeatzeko sistema konfiguratzeko duena) eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan jasota daude. Azken horren bitartez ezartzen da Espainiako, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoko erakundeek eman beharreko informazioa, BEEPren osagaien neurrien mugarriak eta helburuak betetzen direnaren eta aurrekontua eta kontabilitatea betearazten direnaren jarraipena egite aldera. Modu berean, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduari lotuta egongo da, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana betetzen duten prozeduretako interes-gatazken arriskua sistematikoki analizatzeari buruzkoa. Jarraipen-txosten horiek aurkezten ez badira edo osatu gabe, epez kanpo edo pleguaren zehaztapenak errespetatu gabe entregatzen badira, urraketatzat joko dira.
JARDUKETA:	URDATA BIZKAIA 1 – A.21
Kontratazio-organoaren iruzurren aurkako neurrien plana kontsultatzeko esteka	https://www.consorciodeaguas.eus/wp-content/uploads/2023/10/PLAN-MEDIDAS-ANTIFRAUDE_2024.pdf



Financiado por
la Unión Europea



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK



Baimenak emateko, instalazioa egiteko, konfiguratzeko eta proiektua martxan jartzeko, proiektuaren prestakuntza eta dokumentazioa barne, gehienez 3 hilabeteko epea aurreikusten da, kontratua sinatzen denetik hasita.

Hasieran proposatutako lantaldearen kideren bat bajan egonez gero, Kontratistaren ordezkariak beste kide bat proposatuko dio BBUPren Kontratuaren Arduradunari, eta, nahitaez, giza langileei eskatzen zaizkien baldintzak bete behar ditu: lan-esperientzia eta kontratuarekin lotutako prestakuntza (ordezten duenaren berdina edo handiagoa).

Mota bereko proiektuetan esperientzia duela frogatu beharko da (zerbitzua emango duen teknikari berriaren prestakuntza). Halaber, langile-aldaketak egiten badira, enpresa adjudikaziodunak bere gain hartu beharko du ezagutza transferitzearen kostua, eta, ahal den guztietan, teknikariak aldi berean egongo dira transferentzia horretan, teknikari berriak kondizio ezin hobeetan eta BBUPren azpiegitura ezagutzen duela eman dezan zerbitzua lehenengo zerbitzu-egunetik.

Eskaini beharreko zerbitzuan erantzun egokia eta bizkortasuna bermatze aldera, enpresa lizitatzailleak 90 minutuko ZMA bat bete beharko du in situ, joan-etorriak eskatzen dituzten gorabehera kritikoetarako.

Bestalde, honako baldintza hauek ere bete behar dira gauzatzean:

- BBUPren Prebentzio Sailaren eskakizunak betetzea
- BBUPren ingurumen-eskakizunak betetzea
- BBUPren instalazioetako lanetan une oro prebentzio-baliabide bat izatea.

Mantentze-lanak zerbitzuaren beharren arabera egingo dira. Hori dela eta, noiznahi eten edo atzeratu beharko dira, BBUPk hala eskatuz gero (nahierara). Ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekar dezake.

Zerbitzuak lehenetasuna du kontratuko lanen gainetik; beraz, obra-jarduera kontratuarekin bateragarriak diren egun eta orduetan egingo. Hori dela eta, lanak egin ahal izango dira gauez, asteburuetan, lanak egiten ari diren bitartean izaten diren hutsarte handietan eta baldintza jakin batzuetan egiten diren aldi baterako eta ustekabeko etenaldietan. Hori guztia BBUPri inolako kostu gehigarriarik sortu gabe.

Adjudikaziodunak ez du ez ohiko konpentsazio ekonomikorik jasoko horregatik eta, horrenbestez, baldintzatzaile horiek kontuan hartu beharko ditu eskaintzaren prezioetan. Baldintza hori urratzen bada, kontratua suntsitu ahal izango da.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak erabakiak hartzeko gaitasun nahikoa duen ordezkari bat atxiki beharko dio kontratuari, eta horrek kontratista ordezkatu beharko du kontratuaren harremanei eragiten dien guztian.

FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK



Funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da baldintza tekniko berezien pleguaren 5. puntuan adierazitakoa, hauei buruzkoa:

1. Konfidentzialtasun osoz gordeko dira zerbitzua emateko erabilitako datuak eta dokumentuak.
2. Kontratu honen xede diren zerbitzuak ematearen ondorioz lortutako informazio konfidentzial oro hirugarrenei ez zabaltzea eta haien onurarako ez erabiltzea, arreta berezia jarrita indarrean dagoen Datuak Babesteko Lege Organikoan.